

GIMME DANGER JIM JARMUSCH

Apirilak 20 // 21 Abril. 19:00



Gidoia: Jim Jarmusch
Argazkigintza: Tom Krueger
Talde artistikoa: Iggy Pop, Ron Asheton, Danny Fields, Scott Asheton, Matt Watt, James Williamson, Kathy Asheton, Steve Mackay

The Stoogesen rock'n'roll indartsu eta oldarkorrek eztanda eragin zuen 60ko hamarkada bukaerako panorama musikalean. Horrela, dokumental honek The Stooges taldearen epopeia kontatzen du, inoiz izan den rock talderik garrantzitsuenarena. *Gimme Danger*rek talde honen bilakaera musikal, kultural, politiko eta historikoa kontatzen du, hauen abentura zein ezbeharrak oinarri hartuz. Taldearen inspirazio iturriak eta erronka komertzialetatik hasita, musikaren gailurrera egindako ibilbidea azaltzen da.

El rock'n'roll potente y agresivo de The Stooges, fue como una bomba en el paisaje musical de finales de los años sesenta. Este documental narra la epopeya de The Stooges, uno de los grupos de rock más importantes de todos los tiempos. *Gimme Danger* presenta el contexto en el que The Stooges evolucionaron musicalmente, culturalmente, políticamente, históricamente, a través de sus aventuras y sus desgracias, evocando sus fuentes de inspiración y las razones de sus primeros desafíos comerciales, hasta su llegada al Panteón del rock.

OMEGA JOSÉ SÁNCHEZ-MONTES, GERVASIO IGLESIAS

Apirilak 27 // 28 Abril. 19:00



Gidoia: José Sánchez-Montes
Produkzioa: Sacromonte Films / Telecinco Cinema / Universal
Talde artistikoa: Estrella Morente, Antonio Arias (Lagartija Nick taldearen leaderra), Tomatito, Alberto Manzano, Lee Ranaldo (Sonic Youth), Leonard Cohen, Laura García Lorca eta Morente.

Dokumental honek Enrique Morente eta Lagartija Nickek aurrea ateratako ezohiko proiektuaren sorkuntza prozesua kontatzen du: 'Omega' albuma, non flamenkoa, gitarra elektrikoak, Federico García Lorcaren poesia eta Leonard Cohenen partiturak batzen diren. Luzemetraiak zein gerora egindako diskoak 90eko hamarkadatik berreskuratutako materiala (ikusizkoa zein ozena) gehitzen du, baita diskoaren grabaketa eta ekoizpenarekin lotutakoa ere. Horrez gain, orain arte ezezagunak izan diren dokumentu eta kantak ere aurki daitezke. Dokumentalean Morente familia eta Antonio Arias (Lagartija Nicken liderra) azaltzen dira.

Este documental narra el proceso de creación del inusual proyecto de Enrique Morente y Lagartija Nick: 'Omega' un álbum que fusionaba el flamenco, las guitarras eléctricas, la poesía de Federico García Lorca, y las partituras de Leonard Cohen. Tanto el largometraje como el posterior disco incluirán el archivo sonoro y visual que se conserva de los noventa, relacionado con la producción y la grabación del disco, así como documentos y canciones inéditas hasta ahora no oídas. En el documental aparecen la familia Morente; Antonio Arias, líder de Lagartija Nick.

THE DEVIL AND DANIEL JOHNSTON JEFF FEUERZEIG

Maiatzak 4 // 5 Mayo. 19:00



Gidoia: Jeff Feuerzeig
Argazkigintza: Fortunato Procopio
Produkzioa: This Is That Productions / Complex Corporation
Talde artistikoa: Daniel Johnston, Bill Johnston, Mabel Johnston, Jeff Tartakov, Louis Black, Kathy McCarty, Gibby Haines, Jad Fair, David Fair, Matt Groening

Daniel Johnston: Jenioa eta erotasuna. Bere barne mundua gainerakoen aurka. Gaur egun, bere konposizio musikal, interpretazio bereizgarri eta kamiseta zein komikietako diseinuengatik eredugarri izaten jarraitzen duen artista paregabe honen ezaugarri bakan batzuk dira hauek. Laburbilduz, azken hamarkadetakako buru adimentsu baina problematikoenetarikoen baten aurrean gaude. Kurt Cobain bezalako pertsonaiengatik miretsia da, eta pelikula honek bere bizitza pribatua azaleratzen digu: deabruarekin duen harreman pertsonala, alegia.

Daniel Johnston: El genio y la locura. El mundo interior frente al resto del mundo. Estos son sólo algunos de los parámetros en los que se mueve este magistral retrato del artista que sigue siendo modelo a seguir con sus composiciones musicales, su peculiar forma de interpretarlas, sus diseños de cómic y de camisetas. En definitiva, un enfrentamiento total a una de las mentes más problemáticas, y destacadas, de las últimas décadas. Admirado por figuras como Kurt Cobain, esta película nos descubre su faceta más privada: su personal relación con el diablo.

LET'S GET LOST BRUCE WEBER

Maiatzak 11 // 12 Mayo. 19:00



Gidoia: Bruce Weber
Argazkigintza: Jeff Preiss
Produkzioa: Little Bear Productions / Nan Bush
Talde artistikoa: Chet Baker

Aski ezaguna den Bruce Weber argazkilaria eta zine zuzendariak Chet Baker tronpetajolearen bizitzako azken uneak kontatzen ditu txalotua izan den dokumental honetan. Bakerren azken biran filmatutako materiala erabili da dokumentalean, baita tronpetajoleari berari zein bere emazte, seme, lagun eta neskalgunei egindako elkarrizketak ere. Horrela, *Let's Get Lost*-ek, pertsonaia famatu eta talentudunek jasan ditzaketan tranpak kontatzen ditu ohartarazpen gisa. Askok uste dute *Let's Get Lost* inoiz musikari buruz egin den dokumentalirik onena dela.

El reconocido fotógrafo y cineasta Bruce Weber dirige este aclamado documental que narra de forma brillante los últimos días de vida del trompetista de jazz Chet Baker. Valiéndose de material rodado durante la última gira de Baker y entrevistas con el propio Baker, sus esposas, hijos, amigos y novias, *Let's Get Lost* es un documento explícito que presenta a modo de advertencia, las trampas en las que pueden caer los personajes famosos y llenos de talento. *Let's Get Lost* es por muchos considerado como el mejor documental musical de todos los tiempos.

DOKUMENTALEN ZIKLOA SOINUA IKUSI, PENTSAMENDUA ENTZUN CICLO DOCUMENTAL

MARTXOA 23 MARZO - MAIATZA 12 MAYO

ArtHouse
ZINEMA

BilbaoArte

Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

bbk Fundazioa

FUNDACIÓN BILBAOARTE FUNDAZIOA - Urazurrutia 32 - 48003 BILBAO
Tel. 94 415 50 97 - info@bilbaoarte.org - www.bilbaoarte.org

SOINUA IKUSI, PENTSAMENDUA ENTZUN

SOINUA IKUSI, PENTSAMENDUA ENTZUN

Logikari kontra eginez, zinegile batek musikariren baten bizitzaz aritzea erabakitzen duenean, ez da emaitza erakargarri bat lortzen, ez zinemazale ezta musikazaleentzat. Aldiz, mesfidantza da nagusi diskurtsoan.

Baina, mugi gaitezen pixka bat. Musika argumentuaren muina bilakatzen denean, gai zehatza denean, zinemazale zein musikazaleak ez dira guztiz pozik geratzen. Horrez gain, dokumentalaren arauak jarraitzen dituzten ekoizpenak baldin badira, aretoak hutsik geratzen dira eta banatzaileek programaziotik at uzten dituzte ekoizpen hauek.

Baina, mugi gaitezen pixka bat. Musika argumentuaren muina bilakatzen denean, gai zehatza denean, zinemazale zein musikazaleak ez dira guztiz pozik geratzen. Horrez gain, dokumentalaren arauak jarraitzen dituzten ekoizpenak baldin badira, aretoak hutsik geratzen dira eta banatzaileek programaziotik at uzten dituzte ekoizpen hauek.

Erabaki hauekin BilbaoArte ez dago ados, eta honako ziklo hau antolatu du ikus-entzunezko hizkuntzaren eremu emankor eta sortzaileetariko baten aurrean gaudela frogatzeko asmotan.

SOINUA IKUSI, PENTSAMENDUA ENTZUN

Horrela, forma eta eduki ezberdinetako zortzi pelikula eskainiko dira, guztiek ere sorkuntza musikala hizpide dutela. Ohiko biopic-etik esku-sartze ausartera; denontzako ezagunak diren eremuetatik esperimentaziora; rock and roll-etik flamenkora, jazz, reggae eta pop-a ere zeharkatuz. Baina pelikula hauek badute eztabaidaiezina den zerbait komunean: kalitatea.

Zortzi astetan zehar, belaunaldi berrien zati handi batek ezagutu ez dituen pertsonaia ahaztezinak berreskuratuko dira. Hala, zortzi hitzordu izango dira, funtsezko ideia bati eutsiz: soinua ikustarazteko irudiak jarri ahal izatea eta sorkuntza hauek sustatzea ahalbidetu duten pentsamenduak entzuteko hitzak ezarri ahal izatea.

VER EL SONIDO, OÍR EL PENSAMIENTO

VER EL SONIDO, OÍR EL PENSAMIENTO

En contra de la lógica, cuando un cineasta lleva a su relato la biografía o la simple huella de un músico y sus composiciones, no conforma un producto atractivo para cinéfilos y melómanos, sino que elabora un discurso que provoca la desconfianza de unos y otros.

Cambiamos de género. Cuando la música se levanta en la pantalla como el argumento fundamental, como el tema decisivo, la cinefilia y la melomanía fruncen el ceño. Si además la naturaleza del relato se ciñe a las reglas del documental, las salas se quedan vacías y los exhibidores las destierran de la parrilla de la programación.

VER EL SONIDO, OÍR EL PENSAMIENTO

El presente ciclo de BilbaoArte, no conforme con ese exilio en el que se ve relegado este tipo de incursiones, ha decidido (com)probar que estamos ante uno de los territorios más fértiles y creativos del lenguaje audiovisual.

VER EL SONIDO, OÍR EL PENSAMIENTO

Para ello se ofrecen ocho películas de formas y contenidos muy diferentes enhebradas entre sí por su vinculación con la creatividad musical. Del biopic canónico, a la incursión bizarra; del territorio unánimemente reconocido al campo experimental; del rock and roll al flamenco pasando por el jazz y dando un rodeo por el reggae y el pop. En común, la innegable calidad de todas y cada una de estas películas y sus contenidos.

Ocho cintas que durante ocho semanas recuperarán figuras inolvidables que, paradójicamente, buena parte de las nuevas generaciones no han conocido. Ocho citas para concretar una idea elemental: poder poner imágenes para ver el sonido y poder poner palabras para oír el pensamiento que alimentó su creación.

JANIS: LITTLE GIRL BLUE
AMY BERG

Martxoak 23 // 24 Marzo. 19:00



Gidoia: Amy Berg

Argazkigintza: Francesco Carrozzini, Jenna Rosher
Produkzioa: Disarming Films / Jigsaw Productions
Talde artistikoa: Janis Joplin, Cat Power, Peter Albin, Dick Cavett

VER EL SONIDO, OÍR EL PENSAMIENTO


Cat Powerrek, folk alternatiboko kantautoreak, Janis Joplin izar nola bilakatu zen kontatzen du. Horrela, hildako artistaren aurpegi gizatiar eta ezezaguna erakutsiko dio ikusleari, kontraesanez beteriko pertsonalitatearen erretratu zintzo, intimo eta esanguratsua eskainiz. Baina, Amy Bergek idatzi eta zuzendutako dokumental hau berrikuntza borobil bat da: Janis Joplinek urteetan zehar bere lagun, familia eta kolaboratzaileei bidali tako mezuen bidez osatzen da Texasko abeslariaren erretratua.

VER EL SONIDO, OÍR EL PENSAMIENTO

La cantautora de folk alternativo Cat Power es la encargada de narrar los acontecimientos que llevaron a Janis Joplin a convertirse en una estrella. Sucesos que pretenden acercar al espectador a la faceta más humana y desconocida de la fallecida artista ofreciendo un retrato sincero, íntimo y significativo de una personalidad llena de contradicciones. Pero este documental escrito y dirigido por Amy Berg supone una completa novedad: el retrato de Janis Joplin se construye a través de las cartas que la cantante de Texas escribió durante años a sus amigos, familiares y colaboradores.

MARLEY
KEVIN MACDONALD

Martxoak 30 // 31 Marzo. 18:00



Gidoia: Kevin Macdonald

Argazkigintza: Mike Eley, Alwin H. Kuchler, Wally Pfister
Produkzioa: Cowboy Films / Shangri-La Entertainment / Tuff Gong Pictures
Talde artistikoa: Bob Marley, Ziggy Marley, Jimmy Cliff, Rita Marley, Cedella Marley

VER EL SONIDO, OÍR EL PENSAMIENTO

Bob Marley: mundu guztian da ezaguna bere musika eta berak zabaldutako maitasun zein askapenerako mezua; eta bere historia Kevin Macdonalden eskutik pantaila handiak ikus daiteke azkenan. Bob Marleyek musikaren historian izandako zeresanak, erakargarritasun unibertsalak eta izan duen profeta politiko zein sozialaren rolak ez du oraindik ere parekorik izan. Bere musika eta mezuak kultura eta hizkuntza zabaldu dute, eta oihartzuna izaten jarraitzen dute munduan, bizirik zegoenean bezala. Gutxiik lortu dute inpaktu hau sorraraztea, horien artean Bob Marley dago, nahiz eta bere bizitza laburra izan zen.

VER EL SONIDO, OÍR EL PENSAMIENTO

Bob Marley: su música y su mensaje de amor y redención son conocidos en todo el mundo; y su historia ha sido por fin llevada a la pantalla en esta obra definitiva del elogiado y talentoso Kevin Macdonald. El atractivo universal de Bob Marley, su impacto en la historia de la música y su papel como profeta social y político, a la vez que único, sigue sin tener parangón. Su música y su mensaje trascienden la cultura, el lenguaje y el credo y resuenan en el mundo con tanta fuerza hoy como cuando estaba vivo. Solo un puñado de músicos han conseguido tal impacto, y Bob Marley, a pesar de que su vida fue demasiado corta, está entre ellos.

GEORGE HARRISON: LIVING IN THE MATERIAL WORLD
MARTIN SCORSESE

Apirilak 6 // 7 Abril. 17:00



Gidoia: Martin Scorsese

Argazkigintza: Robert Richardson, Martin Kenzie
Produkzioa: Grove Street Productions / Sikelia Productions / Spitfire Pictures
Talde artistikoa: George Harrison, Paul McCartney, Ringo Starr, Eric Clapton

VER EL SONIDO, OÍR EL PENSAMIENTO

Oscar saria jasotakoa den Martin Scorsesek zuzendutako dokumental honek George Harrisonen bizitza du aztergai, 1943an jaio zenetik 2001ean hil zen arte. Horretarako, argitaratu gabeko irudi eta grabaketak erabiltzen ditu. Beatle zeneko urte zoroak, bakarlari gisa aritu zenean izandako gorabeherak eta b ere bizitza pribatuko poz zein nahigabeak kontatuko dira bidean. Harrisonek leku guztietara bidaiatu zuen, mundu guztia ezagutu zuen eta askok amestutako fama lortu zuen. Ukitu epikotik urrunduz, dokumental erabat pertsonala da. Paul McCartney, Eric Clapton, Yoko Ono eta Olivia Harrisonek, besteak beste, Georgerekin bizi izandakoak dituzte berriketa gai.

VER EL SONIDO, OÍR EL PENSAMIENTO

Con imágenes y grabaciones inéditas, el documental del oscarizado Martin Scorsese discurre desde el nacimiento de George Harrison en 1943, hasta su muerte en 2001. Por el camino, sus años locos como Beatle, los altibajos de su carrera en solitario, y todo ello salpicado por las alegrías y las penas de su vida privada. Harrison viajó a todas partes, conoció a todo el mundo y alcanzó cotas de fama sólo soñadas por la mayoría. Al margen de la épica, el documental es profundamente personal. Paul McCartney, Eric Clapton, Yoko Ono y Olivia Harrison, entre otros, hablan abiertamente sobre George y las vivencias que compartieron con él.

CONTROL
ANTON CORBIJN

Apirilak 11 // 12 Abril. 19:00



Gidoia: Matt Greenhalgh

Argazkigintza: Martin Ruhe
Produkzioa: Koprodukzio Estatu Batuak, Erresuma Batua
Talde artistikoa: Sam Riley, Samantha Morton, Craig Parkinson, Alexandra Maria Lara

VER EL SONIDO, OÍR EL PENSAMIENTO

Control Ian Curtisen biografia da, 1973tik 1980ra arte (taldearen lehen bira amerikarraren bezpera arte) Joy Division taldeko abeslaria izan zenarena. Urte hauetan zehar, Curtisen bilakaera ikus dezakegu, David Bowieren jarraitzaile izatetik eta Sex Pistolsen lanean oinarritutako punktetik New Wave rock mugimenduko izar izate-raino. Azken hau 70.hamarkadan Ingalaterran sortutako punk rock mugimendua da. Corbijnek egintza hauek erabiltzen ditu 23 urte besterik ez zituen abeslariak bere burua zergatik urkatu zuen azaltzeko.

VER EL SONIDO, OÍR EL PENSAMIENTO

Control es la biografía de Ian Curtis, vocalista de Joy Division desde 1973 hasta la víspera del arranque del primer tour americano del grupo en 1980. Durante estos años, asistimos a la evolución de Curtis, que parte de su admiración adolescente de David Bowie, a un punk inspirado en la obra de los Sex Pistols, hasta llegar a convertirse en una estrella dentro del rock New Wave, movimiento musical derivado del punk rock, surgido a finales de los 70 en Inglaterra. Corbijn utiliza estos hechos en un intento por explicar que fue lo que le llevó a ahorrarse, con tan sólo 23 años.